


Hondarribia XXVI Herri Kanta Jaialdia

**2015eko maiatzaren 17an
goizeko 11:30ean
Gipuzkoa Plazan**





XXVI. Herri Kanta jaialdia

XXVI Festival de Canto Popular

Egitaraua

Abesbatza	Izenburua	Hitza	Musika	Zuzendaria
Amuitz	Suliko	Akaki Tsereteli	Serge Jaroff	Marisol Etxepare
	Bigarren Kalez Kale	Pablo Sorozabal	Pablo Sorozabal	
Kardiñeruak	Mariñela	J.B. Kamasarri	I. Maritxalar Mold. A. Carton	M ^a Jose Iridoy / Aritz Emparan
	De Trevilleren Azken Hitzak	Etxahun Iruri	Imanol Mol. Kardiñeruak	
Zumardikoak	Errota Zahar Maitea	J.M. Lekuona	Lurdes Iriondo Xabier Lete Mold. G. Ortolaiz	Iñigo Salaberria
	Ama	A. Lesbordes	A. Lesbordes	
Goxoki	Xalbadoren Heriotzean	Xabierlete	Xabier Lete Mold. A. Lasa	Alberto Lasa
	Bizkaia, Gipuzkoa Eta Xiberoa	Etxahun Iruri	Mold. A. Lasa	
Surbesta	Baialdakizu Maite?	Herrikoia	Pablo Sorozabal	Ander Ribes
	Areson Aleka	Emeterio Arrese	David Azurza	
Kasino Zaharra	Amets	Herrikoia	Herrikoia	Junkal Gaskon
	Kaiku	A. Lesbordes	A. Lesbordes	
Klink	Xalbadoren Heriotzean	Xabierlete	Xabier Lete Mold. A. Lasa	Aritz Gonzalez
	Herribera	B. Lertxundi	Mold. L. Ondarra	
Olagarro	Oihan Beltzian	B. Sarasola	Guk Taldea	Xabier Agirre
	Orreaga	Iratzeder	B. Lertxundi Harm. M. Zuazabeitia	
Xarmanta	Amodio Fidela	Lourdes Zubeldia	Javier Busto	Pili Anuncibay
	Sehaska Kanta	Amelia Campandegui	Amelia Campandegui	

Bukaeran abesbatza guztiek batera "Azken Portuan" eta "Agur Jaunak" kantatuko dute.



Suliko

Ene maitea hil eta
Naiz bakarrik galdurik
Haren hobiaren bila tristerik
Errazu zuliko nun zare

Arrosa bat dut ikusi
Bihotzaren garrez irudi
Zu zera ni gandik urrun lili
Zu ote zira zuliko

Hitza: **AKAKI TSERETELI** Musika: **SERGE JAROFF** Zuzendaria: **MARISOL ETXEPARE**

Bigarren kalez kale

Txomin jozak tronpeta
Patxi nunda konketa
Edaririk ez baldin bada
Ekari beteta ja jai
Ekarri beteta

Txakur txiki gorritxo bat
Faltatu zait neri
Hartaz baliatzen dana
Ongi bizi bedi

Kriskitin kraskitin
Arrosa ta krabelin
Hartaz baliatzen dana
ongi bizi bedi

Ja jai ja jai ja jai

Hitza: **PABLO SOROZABAL** Musika: **PABLO SOROZABAL** Zuzendaria: **MARISOL ETXEPARE**



Kardiñeruak abesbatza

Mariñela

Marinela,
 Zuk beti ezin egona!
 Ohetako,
 Itsaso gazi urdina!
 Teilatutzat,
 Zeruko hedoi arina!
 Begietan
 Izarren argi gordina!
 Kulunkari,
 Beladun untzi sorgina!
 Hargatik, hargatik,
 Ez gal gogotik
 Zure goait, zure goait
 Dagola norbait
 Itsas-hegitik!

Hitza: **J.B. KAMUSARRI** Musika: **I. MARITXALAR / MOLD. A. CARTON**
 Zuzendaria: **M^a JOSE IRIDOY / ARITZ EMPARAN**

De Trevilleren azken hitzak

Herio latza hüllantzen ari hiz
 Dolürik gabe orai nitarat
 Othoitzen hait ixtant bat ützi nezak
 Ene azken adiuen egitera

Hori bera da denen ixtoria
 Heriuak bardintzen handi txipiak
 Zeren ilüsiñone bat bera da
 Lürren gañeko gure pasajia

Ene jaurregi pare gabekua
 Hi altxatüz banian fiertate
 Hitan igaran, denbora goxua
 Haiñ llabür nükila ez nian uste

Hori bera da denen
 Adios arren Marie-Maidalena
 Zük ingana nezazü lotarik
 Ene ondotik baratzen direnez
 Izan ez nadiala ahatzerik

Hori bera da denen

Hitza: **ETXAHUN IRURI** Musika: **IMANOL MOL.KARDIÑERUAK**
 Zuzendaria: **M^a JOSE IRIDOY / ARITZ EMPARAN**



Errota zahar

Errota zahar maitea
uraren ertzean,
uraren ertzean da
basati beltzean.
Negar egiten dezu
aleak txetzean.
Ni ere triste nabil
zutaz oroitzean.

Zotin segua dabil
errotarria
itzalitako
izar distirak
dira neretzat
zure begiak.

Izar eder bat dago
hor goiko lekuan,
errota zaharra berriz
erreka zokuan.
Berebiziko pena
badaukat barruan,
ezin gintezke bizi
elkarren ondoan.

Bizitzaren legea
nahi det onartu
hala beharra
goraiez hartu
berez doana
zertan behartu.

Hitza: **J.M. LEKUONA** Musika: **LURDES IRIONDO / XABIER LETE / MOLD. G. ORTOLAIZ**
Zuzendaria: **IÑIGO SALABERRIA**



Zumardikoak abesbatza

Ama

Ai, zer plazerra bost urten bürin sor lekilat ützültzia
 A__ma, A__ma Es__kual Herria
 Ene herria etsitü nian zure berriz ikustia
 A__ma, A__ma Es__kual Herria
 Aski sofrituz nik hanitxetan desir nükian hiltzia
 Ez bazüntüdan hain maite üken, O ama Euskal Herria!
 Tralalala_____, Tralalala_____
 LA_____la,la,la LA_____la,la,la,la LA_____...
 _____Tra la la la la...
 O AMA EUSKAL HERRIA!

Hanitxen gisa partitü nintzan, etsarian güdükara,
 gogua bero, bihotza laxü, eta kasik alagera.

Ez banakian oraino_ordian zer zer amaren beharra
 Hari prentsa_eta biga bostetan, Aiher zeitadan nigarra.

Sortü berriak, bere küñatik, lehen Elia du "ama"
 Bere ilusione_ederrian, ez dezazüla_abandona

Zure_amodioaz egar itzozü bizeitze huntako penak,
 begira dezan azken hatsetan, azken hitza zure "ama"

Hitza: **A. LESBORDES** Musika: **A. LESBORDES** Zuzendaria: **IÑIGO SALABERRIA**



Xalbadorren heriotzean

Adiskide bat bazen, orotan bihotzbera
Poesiaren hegoek, sentimenduzko bertsoek, antza aldatzen zutena,
Plazetako kantari, bakardadez josia,
Hitzen lihoa iruten, bere barnean irauten, oinazez ikasia, ikasia.

Non hago,
Zer larretan urepeleko artzaina?
Mendi hegaletan gora,
Oroitzapen den gerora,
Ihesetan joan hintzana (bis)

Hesiak urraturik, libratu huen kanta,
Lotura guztietatik, gorputzaren mugetatik, aske sentitu nahirik,
Azken hatsa huela, bertsoetik sakonena
Inoiz esan ezin diren, estalitako egien, oihurik bortitzena, bortitzena.
Non hago...

Hitza: **XABIER LETE** Musika: **XABIER LETE - MOLD. A. LASA** Zuzendaria: **ALBERTO LASA**

Bizkaia, Gipuzkoa eta Xiberoa

1. Goxo da bizitzia Xibero gaiñian,
mendi hoién artian trankilitatian,
hargatik aithortzen dit mügaz bestaldian,
badirela xokohunak itsas basterrian.
Khantatzera nuazü huk phentsamentian.

Hondarrabia ta Donostia ere bai Bilbao,
Eskual Herrian eder zidie hain pare gabeko,
ene bihotza hartü düzie osorik bethiko,
ziek egin batzarri ederra ez dit ahazteko.

2. Xokhota batetan da fierrik Hondarrabi,
urez gerrickatürik herriz Hendaia,
bere gaztelü zahar misteriosareki,
lehenago güdüetan nola kolpatürik.
Santa Maria eliza huntarzünez fundi.

Hondarrabia ta Donostia...

Hitza: **ETXAHUN IRURI** Musika: **MOLD. A. LASA** Zuzendaria: **ALBERTO LASA**



Surbesta abesbatza

Baialdakizu Maite?

Baialdakizu maite, loreak zergatik
agertzen diran beti margoz apaindurik?
Ta bere usai goxo ederra emanik!
Jakin zazu ba maite, dala zuregatik.

Hitza: **HERRIKOIA** Musika: **PABLO SOROZABAL** Zuzendaria: **ANDER RIBES**

Areson Aleka

Ale ale, ale ale, ale ale, aleka...

Mandiyo aundi batean artaburuak aletzen,
pozik iñardun gera bart amasei neska ta mutil.
Egun txintaz gero plazan oñariñ eta krixkitin,
guziok irrada bizi sugar aundi batean jiran.

Ta garra bera're dantzan ote dabilen irudi,
txinpart ale bakoitzaren txastada krixkitin gorri.

Kittin kittin kittinki, kittin kittin kittinki...
... Anbrosionena.

Kuttun kuttun kuttunku, kuttun kuttun kuttunku ...
... Ai nere ttunttuna.

Lai lara lai...

Soinu jotzalleak ere gero ta zaletsuago,
bere biziko ekitez soñu alaya jo ta jo.
Gure pozaren emana!
Yoranordu zoragarri!
Amestegiko alaba gurekin emen dantzari!
Aleka!

Hitza: **EMETERIO ARRESE** Musika: **DAVID AZURZA** Zuzendaria: **ANDER RIBES**



Amets

Ah amets amets egin
Itza gisona amets zure ametza
Berriz etorrikozera ondarbiko ñalera
Andaukazu maitea itxaroten duzuna
Berriz eyorriko zera zure txaluparekin
Handaukazu mairea ta bihotza
Berriz etorriko zera Ondarbiko kalera
Handaukazu maitea itzaroten duzuna
Berriz etorrikozera zure txaluparekin
Handaukazu maitea ta bihotza

Hitza: **HERRIKOIA** Musika: **HERRIKOIA** Zuzendaria: **JUNKAL GASKON**

Kaiku

Nere andrea andra ona
Auzuan alan diote
Nere andrea andra ona
Auzuan alan diote
Aizazu zer naizu
Gerore orrelan munduan ere
Biyok bizoko gera gu
Baldin bazare kontentu
Baldin bazare kontentu
Nik beti preskatxurik tabernakua
Sototxuan darokot arno gozua
Ay zer kontetu ay zer alaya
Ezkatzen dautzut nere maitia
Arratzatzuak eta kaiku esnia
Arratzatzuak eta kaiku esnia
Kaiku kaiku kaiku kaiku kaiku kaiku esnia
Arrautzatzuak eta kaiku esnia
Arratzatzu eta kaiku esnia

Hitza: **A. LESBORDES** Musika: **A. LESBORDES** Zuzendaria: **JUNKAL GASKON**



Klink abesbatza

Xalbadorren heriotzean

1. Adiskide bat bazen
 orotan bihotz-bera,
 poesiaren hegoek
 sentimentuzko bertsoek
 antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari
 bakardadez josia,
 hitzen lihoa iruten
 bere barnean irauten
 oinaez ikasia... ikasia.

Nun hago,
 zer larretan
 Urepeleko artzaina,
 mendi hegaletan gora

oroitzapen den gerora
 ihesetan joan hintzana. (bis)

2. Hesia urraturik
 libratu huen kanta,
 lotura guztietatik
 gorputzaren mugetatik
 aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela
 bertsorik sakonena,
 inoiz esan ezin diren
 estalitako egien
 oihurik bortitzena... bortitzena

Nun hago,...

Hitza: **XABIER LETE** Musika: **XABIER LETE / MOLD. A. LASA** Zuzendaria: **ARITZ GONZALEZ**

Herribehera

Herribehera herribehera, zure landen zabalera,
 Ortzimuga den hartan mugatzen da.

Zure lur emankorretan ixurtzen diren asmoak,
 Gogotsu hartuko al ditu lur gozoak

Zure gaztelu zaharrek gorderik duten aintzina,
 Hats tristetan mintzo da haren mina.

Uoooooooooooooooooooooooooooooooooooo

Horma zahar arraituetan, xoriak dira kantatzen,
 Mendeetako lo geldia salatzen.

Nafarroa anai zaharra kondairaren lehen zuztarra,
 Bego higan arbasoen amets hura.

Uoooooooooooooooooooooooooooooooooooo

Hitza: **B. LERTXUNDI** Musika: **MOLD. L. ONDARRA** Zuzendaria: **ARITZ GONZALEZ**



Oihan beltzian

Oihan beltzian xoriak kantian
Uda berria jin denian.
Lumak ez dituzte galdu negian
Dira ohantzian.

Nungo oihanetik kantuz xoriak
Entzunarazi ote dauku deia.
Nundik oihartzunez da xoria
Bai, abertzalia
Zerkantari noriari xori hori.

Oihan beltzian

Zonbat izerdi ta odol xoriak
Ez galduak bai baliatuak
Zonbat luma ez ditu xoriak
Ohantzeratuak...
Zer kantari noriari xori hori

Oihan beltzian ...

Ohantzia dauka gure herriak
Luma pean latza du bizia
Hatsa ere du ezaugarria
da libertatia..
Zer kantari noriari xori hori

Oihan beltzian ...

Hitza: **B. SARASOLA** Musika: **GUK TALDEA** Zuzendaria: **XABIER AGIRRE**



Orreaga

1. Zuhaitzetan den ederrena da, oihan beltzian pagoa...
Orreagako mendi gainetan, badabil euskal-gogoa:
Galernen eta gerlen artetik mendetan barna xut doa,
pagadoietan ixilik ontuz Europakoen geroa.
2. Indarkeriak ezarri mugak kraskatzen hasi orduko,
Euskal gogoa noiz da jauziren arranoaren pareko?
Azpilkueta bezein kartsuko eta jakintza gaitzeko
gizon libroak noiz ote dire Orreagatik jaliko?
3. Zoin den pizgarri mendietarik jauzika doan xirripa...
Euskal-semeak, Aiten gogoa bihotz guziaz hurrupa!
Altxa burua, denek bat kanta: Euskal Gudua gaur aipa:
Entzunik zuen irrintzina, xutik jar Euskal Herria! (Bis)

Hitza: **IRATZEDER** Musika: **B. LERTXUNDI / HARM. M. ZUAZABITIA**

Zuzendaria: **XABIER AGIRRE**



Amodio fidela

Itsaso bare dago eta
bihar goaz arrantzara
amodiozko gau honetan
lotu ditzagun bihotzak
ez urrunak ez ere egunak
autsi ez dezaten lotura

Sinetsi maitea
ez baita autziko lotura,
nere amets goxoena
zurekin izango dira,
oroituz gure hitz zina
"amodio tinko fidela"

Joango naiz itsas ertzera
ur ttanttanak laztantzera
ur ttanttanak egiten du
itsaso sakon zabala
olaturik haundienan
hortxe naukazu laztana

Zerua goibeltzen bada
ez ikaratu maitea
kai ertzean izango nauzu
gogo bihotza zuregan
otoitzean Jainkoari
lagun zaitzala bidean

Hitza: **LOURDES ZUBELDIA** Musika: **JAVIER BUSTO** Zuzendaria: **PILI ANUNCIBAY**



Xarmanta abesbatza

Sehaska kanta - contralto

Nere neska polita, etxeko aingerutxo
Haserre zaude nahi duzu egin lo
lasai maitea nik lagunduko,
sehaska-kantakin kulunka egingo.

A lolo nere ttikia, gozoro abestuko
mainarik ez amonan bihotza, mesedez egintzu lo,
a lolo edertasuna, a lolo goxo-goxo.

Kilin kulun honekin, nere muxu gorri,
begi ederra hoiek itxitzen hasi
aski da mattia ez negar egin,
zure malkoak miñ egiten dit.

A lolo nere ttikia, gozoro abestuko
mainarik ez amonan bihotza, mesedez egintzu lo,
a lolo edertasuna, a lolo, goxo, goxo.

A lolo, lo-o
A lolo, lo-o
A lolo, lo-o
A lolo, lo-o

Hitza: **AMELIA CAMPANDEGUI** Musika: **AMELIA CAMPANDEGUI** Zuzendaria: **PILI ANUNCIBAY**



Azken portuan

Hondarribiko azken portuan
Arrantza_ekasti txar batian
Penak ito nahirik elkar hartu zuten
Hasitzia kinan jokatzten

Martziana, Anttoni, Joxepa ta Adriana
Malixa, Xerapi, Katixa ta Xuxana
Prudentzi hasi yari kinan kantatzten
Miñon begirazan pittika non ttuen

La niña bonita, las dos monjitas
gotti ta behetti ta_abuelua
aritu ez tuenak inpomatzia

Aizan hi generosa gezurti matrakosa
Harriya dun jarria kantatu gabe lumerua
Nik ez diñat kulpikan mahaia dun kojua
turrinballaka faten ttun kañikak bezala

Hondarribiko azken portuan...

Txerafina gaizua lau sosen barbantzuak,
Sei sosen kafia eta beste maxin hura
Orratz komai Dios beteko dut esana
Itsasuan ikusi bai dute atunan bustana

Hondarribiko azken portuan...

Azken Portuan

Lurdes Zubeldia - J.I. López

A

Hon - da - tra - bi - lo az - ken por - tu - an a - ren - tza - e - las - ti -

tar ba - ti - an pe - nak i - to nai - rik el - kar har - tu - za -

31 Mar - tza - na, An - to - ni, ten ha - si - tzi - o - a ki - ran jo - ka - toen. Tan Tan

36 Jo - se - pu - ta A - dria - na, Ma - li - xa, Xe - ra - ji. Tan Tan Tan Tan Tan Tan

23 Ka - ti - xa ta Xui - xa - na, Pru - den - tzi - ha - si - ya - Tan Tan Tan Tan Tan

29 ri Hi - na kan - fa - toen mi - non be - gi - ra - zan gi - tti - ka non ttu - en. La

B 35 ni - fa bo - ri - ta las dos mon - ji - tas go - tti ta beha - tti

41 ta a - bu - ha - a - si - tu ez - tu - e - nak in - pro - ma - tzi - a. *Finis*

2 - Aiken Portuan

1^a vez C

47 Al - zan ni ge - ne - to - sa ge - zur - ti ma - tra - ko - sa
Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom

51 ha - rri - ya dum ja - rri - ya kan - ta - tu ga - be ha - me - ru - a.
Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom

55 Nik ez di - nat hul - pi - kan maha - la dum lo - ja - a
Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom

59 tu - rru - ha - la - ka fa - tro - tzu - la - ri - lak be - za - la **A la Bypass a la D**
Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom

D 63 Tuzza - fi - fa ge - zu - a lau so - sen bar - bam - tza - ak sei so - sen ka - fi - a - e - ta

69 be - te ma - xiu lu - za o - rraz co - mi Di - os be - te - ko dut e - ssea,
Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom Dom

75 i - sa - ru - an i - ku - si bai du - te a - tu - nan bus - ta - na.